




ELEIZAKO ERAKASLE AUNDI SAN AGUSTIÑ-EN

DOANDITZA,

Jesus-en Lagundiko A. Manuel Larramendi-k erausiya.



EGILLEAREN BERRI LABURCHO-BAT

Aita Manuel Larramendi, Jesus-en Lagunkidakoa, eta doanditza edo panejiriko onen egillea, Gipuzkoa-ko Andoaín-en 1690-n urtean jayo zan; eta 1707-tik 1766-bitartean jesuita on ospatsuba eta jakin-duriarik aundienekoa izandu-ondoren, Loyola-n eriotza doatsu ederrarekin Jainkoaganatu zan. Bere ikaskizunak bukatuta, Aita edo Apaiz egin zanetik, iztun ta irakasle otsandienekoa Balladolid-en eta batezere Salamanka-n urte askochoan izandu zan. España-ko Erregiña alargun Maria Ana Neburgoa zeritzanaren conpesatzallea zala 1733-urtean Bayona-n arkitzen zan. Ura il zanetik, Loyola izandu zuben bere bizilekurik maiteena eriotzara artean. Batez-ere lau izkunde, latín, gaztelania, franzes ta euskera oso ederki zekizkien, eta bere liburu andi eta eskuzkribu baliotsu geyenak gaztelaniaz izkribitu zituben. Oyetatik bat, Gipuzkoa-ko *kondairaren parte edo korografia* deritzana, 1882-an argitaratua izanda. Euskera utsean egin zituenak, eta gugana irichi diranetatik, ezagutzen ditugu bakarrik segurutzat oraindañokoan, Aita Astete-ren *Kristau-*

dotriña, bere *korografia*-ko, *Iztegi-aurreko* ta karta batzuetako jardun-aldicho zenbait, Aita Sebastian Mendiburu-ri 1747-an bialdu zion *eskutitz* luze-ederra, eta San Agustiñ-en *Doanditza* au. Bere bizitzako eta bere izkribuen berri zearo ta ugariagoa irakur lezake nai duenak 1870-urtean argitarazi genduen liburuban. (Vidas de algunos claros varones guipuzcoanos, de la C. de J.—Tolosa: Imp. de M. Gorosabel y C.^a)

Milla zazpireun ta ogeita amabost-garren Marchoaren 25-an itzaldi-euskerazkoa Loyolan lendabizi egin zuen Aita-Larramendi-k; eta urrengo urteko San Inazio egunean predikatu zuan Azpeitian Aita Probinzial Franzisko Miranda, bere Aita-laguna eta gañera Loyola-ko aitanai guziak aditzera ara juanik.

Oarkerak 1.^{koa} Ez dakigu oraindik Azpeitia-n, Ernani-n Mendaro-n edo Mutriku-n, nun otsaldituko ote zuen Aita Larramendi-k Doanditza au.

2.^{garrena} Itzaldi onen izkiralda edo kopiariak zaarrena Azpeitiko Apaiz Jaun On Bizente Arregi-zanak zedukan; eta berak lagundu digu, au utsegiterik gabe argitarazten

(JESUS-en Biotzari ta aren maitalari bikañ Done Agustiñ-i lenbizi ta gero bere izeneko On Agustiñ Jauregi euskaldun-apaiz izdun obeeneta-koari donkidatua)

1738-1760.

SAN AGUSTIÑ-EN DOANDITZA

Vos estis lux mundi
Zuek zerate munduaren argi
(Math. v. 14)

Argi asko degu gaurko Ebanjelioan. Kristo gure Jaunak ondrazten ditu Eleizako Irakasle edo Doktore Santuak argiaren izen ederrarekin «*Vos estis lux mundi*:» eta onezaz bide-irikitzen digu Doktore Santu bat alabatzeko, alako bide-berdiñ argizkoa, zeña begien aurretik kentzen eta galtzen badegu, edo ichuka ibilli, edo illunpean gelditu bearko degu. Argiaz itz-egiten degunean, gogoratzten oi zaizkigu bereala eguzkia, illargia, eta beste zeruko izar guziak. Baña ezdakit nolakoa natorren gaur: ez del arkitzen zeru-

guzian gauza baterako bear dedan diñako argirik. Goizeko izar, arako eguna dakartenak, illunabarreko arako gau-karraioan dabil-tzanak, goizean zillarrezkoak, arratsean urrezkoak badirudite ere, ez naute betetzen, ukitzen, gozatzen: aiñ nator gozakaitza. Izarrak ez dira gauza; eguzkia argi guchi duena; Zodiako guzia (zeru-troza aundi ura, eguzkiaren urte guztiko bidea) troza laburra da, nere pensamentua lotutzeko. Aita San Agustiñ-ez aiñ dakart buru au be-terik, eta aiñ iduritzen zat aundia, non guchi deritzadan zeruari eta ark daramatzien argi guziai, ura neurtzeko eta konparatzeko. Nola bada? ¿Eskriturak ez ditu neurtzen iñon diran Santurik andienak, zeruan diraden argiakiñ? Ala da egia. *Justi fulgebunt, sicut sol.*¹ *Fulgebunt quasi stellæ in perpetuas æternitates;*² ¿Zergatik bada neu-rrri bear ez degu ayekin berakin? ¿Nor? ¿San Agustiñ? Ez oriñe. Eskriturak badaki zer dion: eta diona baño geyago-ere adierazten badaki. Ez dakit ainbeste; ez det alako somarik. ¡Zer bada! ¿Nik bil-du maiñu guzien lorea, eta nik naastu edozeiñ Santuri dagokan ar-gipilla-batean, Doktore guzien erpiña, Santu guzien bikaña, Teolo-go guzien gallurra, Fedearen ohea, Eleizaren kutuna, itz-batean, Agustiñ au, guzientzat jayorikako atsegiña eta poza? Ez diot iñori alako naigaberik egiñ nai. Argi eskañak dirade oriek; odeatzen, illuntzen, gerizpetzen diranak. Billa zadazute, arren, beste argi obeago bat, «*Dixitque Deus, fiat lux; et facta est lux.*»³ Lenbiziko argi artatik, diotenez, egin zituen Jaungoikoak laugarren egunean, eguzkia, illargia, eta izar guziak, eta oraiñ ainbeste izarretan isuria eta bakandua dagoen argia, batean biribillatua egondu zan lenengo iru egunetan: «*Primo die factum esse lucem splendidissimam*, dio Teodoretok, *quarto die fuisse eam in solem et lunam cæteraque si-dera dispersitam*». Orra bada doi doi, nik beardedan argia, argi gu-zien lenik-jayoa; argi-errañu guzien asiera eta jayotza. Argi au du San Agustiñ-en señaile edo sinbolorik ederrena; zerren dan erakus-garri obeto dagokana; beste guziak baño aren anz andiagoa duena. Dira beste Doktoreak, eguzki ta izar batzuek bezela; oriek dirade argi bigarrenak beste lenbiziko batetik egiñak eta prestañiak. Biz ordea San Agustin, munduaren lenbiziko argia bezela, beste guzieri iturria, ez gereizik, ez odeirik, ez illunberik ezagutu zuena. «*Vos estis lux mundi.*»⁴ Zerren, Santo Tomas aingeruak dionez, Jain-koak lenbiziko argia, egin zuen argi-utsa; argi-utsaren izatea ze-goan erara, argi guziakikoa, eta guzierako *Secundum commu-nem lucis naturam*. Utsegin dezu; esango dirate Filosofo bekozko-

(1) Math. 13, 43:—(2) Dan. 12. 3.—(3) Gen. 1, 3.—(4) Math. 5, 14.

dunak; begitandu zatzu; oyek dirade ametsak eta kontuak, Platon-en iduripenak, egarik bagekoak, ipuyak eta gezurrak. Ez da iñoiz ikusi, ez da ikusiko ere orrelako argirik, argi-utsa danik, argi-utsaren izatea daukanik, argi *guziakikoa* eta *guzierakoa* danik. Oraiñ-daño sortu diran argiak izan dira argi an edo ori, argi bata edo bestea, argi illunago edo arrayago, argi guchi edo iori; baña ez argi-utsaren izena eta izana duanik; ez onena, ez arena, ez iñorena danik; ez da ori eginkizuna, ezinkizuna baizikan. Ala ere ez naiz ikaratzen. berriz ba-diot, etzala bestelakoa izandu mundu onen lenbiziko argia. Ez da au nere erausia; Santo Tomas-ek dion egia bat da. «*Oportet dicere, quod lux primo die fuit producta secundum communem lucis naturam; quarto autem die attributa est luminaribus determinata virtus ad determinatos effectus.*» Bijoaz oraiñ Filosofo errietariak Santo Tomas-egana eta esan biozate aurkez-aurke ametsak edo iduripenak diradela. Jakiñ bezate izan dala munduan argi bat guziekikoa eta *guzierakoa* geren adiunetik kanpora argi utsa, zeñi argi-utsaren izena ta izana zegokan latíñez argi *ut sic*, eta euskeraz obeto *argia utsik; secundum communem lucis naturam*.

Eta oraiñ badiot-ezen gure Aita San Agustiñ-andia, dala argi ura bezelakoa izatez, egiaz iduripenik-bagea; *argi bat guziekikoa eta guzierakoa*; argi guzietan arkitzen dana; izandu diran, eta oraiñ diraden, eta gero izango-diraden iñondikako argi guzietan-ere sortuko dana. San Ambrosio da argi bat eta bakar; San Jeronimo beste bat eta bakar. San Gregorio da argi au, San Isidoro argi ori, San Juan Krisostomo, Nazianzeno, Santo Tomas, San Buenabentura dirade bat, Bi, iru, lau, argi chitezko ederrak; baña bakarrik San Agustiñ ez da argi bakarra, ez da bata, ez bestea, ez da au, ez da ori. ¿Zér da bada? Lenbiziko munduaren *argia* bezela, *guziekikoa* eta *guzierakoa*; argi bat eta argi asko, eta argi-guzia dagokana. *Secundum communem lucis naturam*. Eta argi au bera nere ustez adierazotzen digu egungo Ebanjelioak esaten duenean «*San Agustiñ, dala munduaren argia;*» esan-gabetanik zer argi dan, nolakoa dan, nondik edo nongoa degun argi au. *Vos estis lux mundi.*⁴ Orra bada *nere sermoigaya*. Ondo mea eta segalla; zeñaren bear dan bezela, edertzeko eta apaintzeko, grazia askoren bearra daukat. Eska dezayogun au; grazia guzien Amari, esaten diogula: *Agur Maria*.

(1) Math. 5, 14.

LENENGO PARTEA.

Lux mundi lucens.

Nere sermoi-gaya da esatea gure Aita San Agustiñ andia, izandu dala mundu onen lenbiziko argia, eta ura bezelakoa. Elkargana ditzagun biok eta agiriko da zeñi ederki dagokan San Agustiñ-i lenbiziko argiaren izena, eta berriz lenbiziko argi orri zer polliki datorkion San Agustiñ-en antza eta iduria. *Vos estis lux mundi*. Lenbiziko argi ura izandu zan argi utsa, zeñaren erraiño eder irazekiak etziran emendatu iñoiz, ez galdu, ez likistu ere odeyez, illunez, gereizez, eta ona bereala gauza bat San Agustiñ-en argiari faltatu zitzayona. ¿Noskiro ez dakigu San Agustiñ izandu zala lenbizian gau erdia baño illunago lañoiz, odeiez, gereizez, ichusiz betea? Badakigu. ¿Era batean bere erara bizitu etzan? Bazan. ¿Bere amandre gaiñoari eziozkan naigabeak egiñ eunka ta millaka? Baziozkan. ¿Ez zirudien bere gazte denboran lagunak baño choroagoa, errazago limuriagoa? Bazirudien. Orrezaz gañera, eta gaiztoagoa dana, ¿ichutu ta erori ez zan Manikeo zitalen utsegin likitsetan, eta ondaturik egondu etzan leize izugarri batean? Ala da egia. ¿Ta ori da San Agustiñ argia izatea, eta berangandik argi erraiño ederrak isurtzea? Aditu ondo. Eta ori obeto aditzeko, arreta guziok, lenbiziko argi artzaz eskriturak dionari. Egin zuen Jaungoikoak argi ura, esan degun bezela, argi-utsa, eta orregaitikan ere bazirudien illuntasunean bildurik zegoala; edo beintzat illuntasuna argiari alderen batetik bazitzekala. Argatik Jainkoak, itsasirik zeudela biak alkar, bata besteagandik bereiztu zuen; «*Divisit lucem à tenebris.*»¹ Esango nuke nik, lenbizi-artan illuna eta argia alkar itsasirik eta eldurik, nork nori eragingo zion, zeñek zein garaituko zuen, ibilli ziradela; noiz-eta Jainkoak ikusirikan burrukan biak, erdian bitarteturik, aparterazoko zituen: «*Divisit lucem à tenebris.*» Eta orduan argiak bere erraiño guziak libre zeuzkaziela, aiñ bete-bete jo-zuen bere etsai illun ichusi ura, non sekulako beregandik igeseragin zion, eta orrekin bera gelditu zan betiko argi-uts ederra.

Auñe bera gertatu zitzayon San Agustiñ-en argiari; ta ara nola: Batayatu artean gizon guziok ez oi gera, San Paulok dionez, gaba ta illuna baizikan, eta batayatatutzeaz zerura jayo ezkeroz, orduan egin oi gerade argi, «*Eratis enim aliquando tenebræ, nunc autem lux in Domino.*»² Orduan Jainkoak nai-ta, igesi dijoaz gugandik

(1) Gen. 1, 4.—(2) Ad. Ephes. 5, 8.

illunak eta gauak; orduan Jainkoak berak izitutzen ditu alkargandik argia eta illuna. «*Divisit lucem à tenebris.*» Ea orain San Agustín-engana. Egin zuan Jainkoak, argi-utsa izateko mundu one-tan; eta orra-non bereala eraso zioten illunak eta gabak; bildu eta estali zuten bere ichutasun ta ichustasunean; eldu eta itsasi zitza-yozkan, eta aín lazki, non zirudien emendatu bear ziozkatela bere argiak, eta ito bere argi-errañu guztiak. ¿Noiz ordea zan ori? Zerura jayo baño len, graziaren mundu ederrean, au-arteraño ezer-ere etzanean. Orduan gabaren aldia; orduan illunak agintzeko mendea. «*Eratis enim aliquando tenebræ.*» Ordukoak dira San Agustín-en odehyak, gereizeak, utsegiñez arkitu-zan ezkerozkoak; ez batayatu zanetik egiñak eta ikusiak; bada arrezkero izandu da San Agustín, argia ez-ezen, argi guztietatik argi-uts garbi ederrena. «*Nunc autem lux in Domino.*» Ez iñoiz illundu, ez odehyatu, ez argez edo elkip-sezezkutatu dana; bai beragandik itzal guziak urruti bota zituen. Eta orra, oso-oso nola dan San Agustín, lenbiziko mundu onen argia bezelakoa. «*Vos estis lux mundi. Fiat lux, et facta est lux.*» Bai egia balitz, esango didazute; bai egia balitz etzala iñoiz illundu San Agustín-en argia batayatu zan ezkeroztanik; ez da ordea ori egia izan; zerren badakite guziak, Santuak egin zituela liburu bi, bata bere pekatuak aitortzeko, bestea bere utsegiñak eta oker-esanak zuzentzeko. ¿Zer dira gaizki-eginak eta gaizki-esanak, ez-bada gaba illuna, itzal-ichusia? Beraz ez da San Agustín argi-utsa; ez da lenbiziko munduaren argia. Ez nuen uste aín gogor egongo ziñatela San Agustínen argiarekin; baño nik samurtuko zaituztet. Diot bada bildurrikan gabe, etzala iñoiz-ere illundu San Agustín-en argia. Ez degu zer ukita aren pekatuen gañean; zerren arestiyen giñion bezela, zerura jayo baño lenakoak ziran. Beste utsegiñak aín-entzuten illundu San Agustín-en argia, non geiago edertu zuten, eta biurtu zuten argiago. Au da Doktore Santu onen gloriarik andiena; luzitzea argiaz; argiaz ez-ezen, illunez ere bai; erakustea munduari ondo eta zuzen, esanekin ez-ezik, oker eta zarrera esan zituenakin ere-bai. Izan zituen-bai, bere gabak argi onek. ¿Nolakoak ordea? Arako Dabid-ek esan zituen bezelakoak, chit-asko-jakiñak, gau batak beste-ari alkar jakiunde-erakusten ziautenak. «*Et nox nocti indicat scientiam.*»¹

Geiago ikasi du munduak San Agustín-en gabetan, beste Eleiza-ko Doktore-en egunetan baño. Argi andiagoa zuen San Agustín-ek gabaz, beste guztien egunak baño. San Agustín-en gabak etzuen

—
Psal. 18, 3.

illunberik; aiñ zirudien ta zan argia, nola dan egunik argiena. Argatik eroze ñek, San Agustiñ-ek gabak ikusteaz ta irakurteaz, esan dezake Dabid-ek kanta baten erdian dion ura. «*Nox illuminatio mea in deliciis meis.*»¹ ¡Au gaba argi! ¡Au gaba gozo! ¡Ez nik iñoren egunetan! San Agustiñ-en arratsetan bai ditudala nik nere atsegiñak eta poz-aldiak! «*Quia tenebræ non obscurabuntur à te.*»² Argatik eze, dituen argierak illunduko ez diraden iñoiz; «*Et nox, sicut dies illuminabibur.*» Zergatik eze, aren gaba, egun bat adiña, argituko dan: *Sicut tenebræ ejus ita et lumen ejus.*³ Zergatik eze, nola dan aren illuna, alāse izango ere aren argia. Arratsetan, ots-garbi danean, ikusten ditugu izarrak, eta ala-ere gaba da, ta illunbean gaudede; baña ez da orrelakorik San Agustiñ-en gabetan, utsegiñetan, zeresanetan: bada beti dago otsgarbi: beti ageri dira izarrak; are geiago; agiri dira eguzkiak; are geiago; agiri da, eguzkia ta izarrak-baño argi bat andiagoa; egiten diguna egun-bat, eguzkia bero erpiñ-erpiñean dijoanean baño argiago eta ederrago. Ez dezute oraiñ esango San Agustiñ-en argia illundu dala, odeitu dala, itzaldu dala. Beraz, izandu da argi-utsa eta mundu onen lendabiziko argia bezela. «*Vos estis lux mundi. Fiat lux et facta est lux.*»

(Aurrandetuko da.)

FIESTAS DE LA CORONACION DE NUESTRA SEÑORA DE ARANZAZU



Segun nos participa, en nombre de la Junta organizadora de las mismàs, el Sr. Secretario Fr. Vicente Suarez, se suspende, por ahora, en atencion á las tristes circunstancias por que atraviesa la salud pública, la Coronacion de la Santa Imágen de Nuestra Señora de Aranzazu, quedando aplazadas, en su consecuencia, las fiestas anunciadas. (Véase pág. 60.)



(1) Psal. 138, 11.—(2) Ps. 138, 12.—(3) Ibidem,



ELEIZAKO ERAKASLE AUNDI SAN AGUSTIÑ-EN

D O A N D I T Z A .

Jesus-en Lagundiko A. Manuel Larramendi-k erausiya.

(AURRANDEA.)

Beñ atora geranean, gaitza zirudien pauso onetatik, ¿nork esango digu San Agustiñ-en argi-an nolakoa dan, zeñ andia, zeñ bizia, zeñ ederra? Goazen lendabiziko argiagana, eta archek esango digu jakiñ nai deguna. Argi ura egin-baño-lenago, etzan munduan ezer ikusten; guzia zan gaba, ta illuntasunak zedukan osiñleizearen azala ta gaña, «*Et tenebræ erant super faciem abyssi.*»¹ Baña bitarte artan Espiritu. Santua zebillen uren gañean, santutzen zituela bere ukitzeaz eta birtutez, gero izango genduen batayo santurako. «*Et Spiritus Dei ferebatur super aquas.*»² Eta onen ondoren egin zuan Jainkoak lenbiziko argia; illuntasun guztiak kentzeko eta banatzeko. «*Fiat lux et facta est lux. El divisit lucem à tenebris.*»³ Azken oni narraikiola; kristau-mundu onetan egin zuan Jaungoikoak gure Aita San Agustiñ, iñondik sortzen diran gabak, illunak eta gereize ichusiak desegiteko eta ezereztatzeko. Erejia bakoitza da arrats

(1) Gen. 1, 2.—(2) Ibidem.—(3) Gen. 1, 3 at. 4,

ichia baño illunago, zeña arkitzeko eta agertzeko, ez da asko-adiña eguzki askoren argia. ¿Nolako gaba beraz egingo dute erejiya guziak batean bildurik eta baturik? Eta nolako argia bearko da guztiak beingoan zatitzeko, banatzeko, desegiteko, eta ezereztara biurtzeko? Bada alakosea da San Agustiñ-en argia, infernutik sortu diraden erejia guztiak, zeñ-ere diran illunak eta bortizak, desegiñ zituen. Bazirudien Eleiza Ama Santaren zeruba, guri argi egin baño lenago, gabaz illuntzera eta illunez estaltzera zijoala, izarrak emendaturik, ezkutaturik eguzkia eta illargia, nork daki non. Fedearen-egiak gezurraren ujolak ondaturik; bagak bagai zerraiztela, kristautasuna ondatzeko, itotzeko, galtzeko zorian zebiltzan; birtuteak etzuten beren antzik; ezer-ere agiri etzan; guztia gereizez, guztia illunbe; guzia gau. *«Tenebræ erant super faciem abyssi.»* Manikeoak alde batetik; Donatista-k bestetik; Arrianoak emendik; Pelajianoak ortik; eta beste Eleizaren etsai ikaragarri guztiak, infernuak bere goragaleetan bota zituenak, gautu zutela zirudien Eleiza Ama Santaren egun-ederra. Ala ere, bitartean Espiritu Santua zebillen Eleizari bere argia prestatzen; eta artarako batayo Santubaren urak leen ere-baño birtute eta indar geyagoz betetzen, arrotzen eta uanditzen, *«Et Spiritus Domini ferebatur super aquas,»* noiz-ta bat-batean agertzen dan munduan San Agustiñ-en argia, aĩn bizi, aĩn andi, aĩn eragille, alako jakiundearen errañu gozo arrekin, non eguzkiak ifar-lausoa beziñ erras banatu eta desegiñ zituen gau illun guztiak; lurperatzen zituela andikan sortu ziraden ereje zital eta erejiya ichusi guziak; batere aien aztarnarik geratu gabe lurgañean *«Divisit lucem à tenebris.»*

Ar dezagun eskuan berriz gure neurria. Lenbiziko munduaren argia izandu zan guziakikoa, beste guzien gaya eta jayotza, zeñegandik egin diraden zeruan argi guziak. Eta gure Aita San Agustiñ jzandu da argi bat *guziakikoa*, Eleizako argi guzietan argitzen dana, guzien gaya eta iturria. Argi-iturri onetan edan zituzten Eleizako doktore Santuak beren liburuetan ikusten diraden argi ederrak: onetan batzuek izartu, besteak onetan eguzkitu ziran: emendik atera zituzten ainbeste argi churi, gorri, urdiñ, oraiñ zillar, gero urrekolorea dutenak. Guztia zor-zayo San Agustiñ-en argi *guztia-kiko* oni. Ez dezazutela beldur, orregaitik emendatu, bukatu, aituko dala neurrigabeko argi au; bai eta jarioko-ere etorkizaldi guzientzat, mundu onek dirauen artean. Are gelago: munduan diraden eskola guziak andizkatzen dira San Agustiñ-en izenaz, eta aberasten eta edertzen oi-dabiltza ainbeste urteren-epean aren argiarekiñ guztiak San Agustiñ-i dagozka; ari jarrai, ari begira, ura berega-

natzen dutela. ¿Tomas-en eskola famatubak zenbat argi eder irazaki ote ditu? ¿Eta Jesuitenak zenbat? Errazago da kontatzea eguzkiaz dakusgun lausoa, zeruko izardia, ondarreko arē sea, basoetako os-toak, ezen ez eskola oyetako argi andi eta azken-gabekoa. Ez da erraz, esango dit norbaitek, gauza ori zuzen aditzea. Eskola oriek ez dabilta bide-batetik; bata dijoa alde-onetatik, bestea orretatik; batzuek diotena, besteak ukatzen, ta ezereztatzen dute; ta egun-oro alkarren kontratzen, eta gezurtatzen dirade. ¿Nola bada guziakikoa izan diteke San Agustiñ-en argia eskola orientzat? ¿Noazkiro, ba-yezkoa dionaren argia izan diteke ezezkoa dichekanaren argi? Nekezago da ori, gaba eta eguna alkartutzea baño. «*Quæ societas luci ad tenebras?*»¹

Beraz egia ez da San Agustiñ dala geyentzat eta guzien argi. Bada ordea. Nik azalduko del nola; eta korapillo au zeñ-ere dirudien estu, nik epaki-gabe askatu-det; eta erraz ala-ere. Beti iduritu zait gure Aita San Agustiñ dala argi-ichaso zabal andi bat bezelakoa, eta izen onechek emango digu bear deguna. Gauza jakiña da zer suertatzen zayoten ichaso zabalean dabiltzanai. Ontzi bat dijoa alde batetik, eta bestea bestetik; an dabill eguaren kontra, ori iparraren-kontra dabill; orain igotzen dira eguzkiaren jayotza-ronz, gero eguzkiaren illtzeronz; jaisten-dira batean eskui, bestean ezker. Bide oriek kontratatzen dirade; ez dira ausi; ongi dijoaz; zuzen dabilta; zergatik ichasoak bere barrutian, geiago badira ere, badu guziak artzeko bear-diña ur, bear-diña bide, bear dan, ta ere bear dan baño geiago.

Ause bera bada gertatzen zaye, San Agustiñ-en argiari darraizkan eskolai. San Agustiñ da argi-ichaso zabala, zeñean sartzen diran eskola guziak, ta aisa ta lasai kabitzen dira: kontratzen dirala noizeanbeñ beren bideetan badirudite ere: baño argi-ichasotik kanporatu gabe! Tomistak eskui aldetik, ezkerretik Eskotistak, Jesuitak erditik bideratzen dira: guziok jakinduriaren billa; guziok egia-aren eske. Bijoaz zuzen argi-ichaso onetan dabiltzan artean, lema zuzen badaramate, ez dira galduko, ez-da ondatuko-ere. Beste ichaso orri, paratu zionean Jainkoak ondarrean bere marra eta esia, esan zion: «To; ona noraño elduko aizan, aurrera igaro gabetanik; emen porrokatu eta ausiko dituk ire бага-jaso apardunak.» *Hic confringes tumentes fluctus tuos.*»² Ordea San Agustiñ-en argi ichasoari etzion Jainkoak ipiñi muga-arririk, ez-ta ubaztarrik-ere, bere Eleiza Santaren Doktoreak ibilli zitezen lasai eta zabal, gora ta bera, batera eta bestera, alkar-ikutu-gabe eta kalterik artu-gabe.

(1) Il. Ad. Cor. 6. 14.—(2) Job. 38, 11.

¿Eta zér da au guzia, ez-bada San Agustiñ izatea guziakiko argi eder bat lenbiziko argi eder ura bezela? «*Secundum communem lucis naturam. Vos estis lux mundi.*» Ichozu, esango dit kontuan dagoanen batek; ichozu; San Agustiñ bada lenbiziko argi eder ura bezela, beraz ez da oraiñ San Agustiñ-en argirik munduan. ¿Zergatik ez? Zergatik lendabiziko argi ark etzuen iraundu, iru egun baizikan; laugarrenean desegin zan; ezkutatu zan; ondatu bezela egin zan, arrezkero arkitzen ez-dala iñon-ere. Eta eranzuten badiotet, badi-rauela oraindikan, eta agiri dala zeruko argi eder lenbizikotik egin ziranetan, esango dirate, ori dala izatea beste Santuak adiña bezela; bañan ez nik diodana, besteak baño geiago eta argiago; bada beste guztiak dira, eguzkia eta izarrak bezelakoak, asieran esan degunez, «*Fulgebunt iusti sicut sol. Fulgebunt quasi stellæ.*» Beraz, edo San Agustiñ-en argiaren errañurik eta izpirik-ere gelditu etzaigu, edonere arroturikako sermoi-gayak badu ichura bai, eta kemenik ez.

Ez nazute berdiñ ikaratuko. Gure Aita San Agustiñ izandu da eta oraindik ere bada, lenbiziko argi ura iru egunetan-zan, eta oraindikan-ere dan bezelakoa. Argi ura iru egunetan oso; urrengoetara puskatua gelditu zan; galdu zuen argi ark oso ibiltea, eta geroztanik bakan dabill izarretan. Ordea San Agustiñ da, beingoan argi ura oso, eta puskatua beingoan: argi batua eta bakandua; osoa beragan, puskatua besteetan; argi batua bere ustakai ederrean, eta bakandua beste Eleizako Doktore guzietan. Desegin zuan Jainkoak argi ura izarrak egiteko. ¿Eziñ bada egin zitzakean alako argia desegin gabe? Bazitzakean; baña guzia egin zan andiegia, argi-egia, eta gizonari etzegokana; ta argatik gizona egin baño leen, ezkutatu zuen. Lilluratuko zituen argi ark begira zegozkán guziak; kandutuko ziran, eta ichutuko ere bai; ala dio Teodoretok. San Agustiñ-en argia etzuen Jainkoak desegin; ala da egia: ¿Zertako bada argandik eta arekin egin zituen beste Doktore Santuen izarrak? Zerren San Agustiñ-en argi osoa guziegia dan andiegia, biziegia, ta ari betaz-beta dagozkan guziak lilluratzen eta ichutzen diran.

Ereje guziak-ere San Agustiñ-i darraizka; aren izena aoan, kopetan, liburuetan, jolasean darabillte, beste Doktoreak beregandik urruti-urruti, ezer-ere balio ez balute-bezela. San Agustiñ nai dute berentzat, San Agustiñ beren alderonz, San Agustiñ beren utsegiñen estalkitzat. ¡A erotzar galdutzarrak! ¿Eta nola bada galtzen dira erejeak argi oni begira daudela? Geiegiak ichutzen ditu. Onzak, mozolloak eta beste gau-choriak gauz ikusten dute; eziñ ordea egunez; eta ori ez da argiaren falta, ayen begiena baizikan; argi geyegiak ichutzen ditu. ¿Zér nailuteke bada ereje ichu gautarrak? ¿Beren begi

lausoakin, beren ikuskera labur gereizatuakin egon begira San Agustiñ-en argian lilluratu, kandutu eta ichutu gabe? Begi argiko-entzat-ere geiegi da San Agustiñ-en argia; etzayo betaz-beta begiratu bear. Nola gure Jaungoikoa argi-utsa dan eta eziñ begiz ikusi dana; eta nola bizi dan iñor ere argana igo eziñ ditekean argi-leku batean, «*Lucem inhabitat inaccessibilem*,»¹ ala egotsi zion San Agustiñ-en argi oni egoki aūse: egin zuen argi-utsa, eziñ-iñork ere begira deza-keana aurkez-aurke eta zuzen, ichutu gabetanik. Eta nola Jainko-ayen argia ikusten dan beregandik iñurtzen dituen erraiñuetan eta ispilluan bezela agiri dan kriatura oyetan; «*Videmus nunc per speculum in ænigmate*;² ala etzayo bear begiratu San Agustiñ-i ezpada bere argi erraiñuetan, eta argandik agiri diraden Doktoreetan. Etzayo begiratu bear San Agustiñ osoari, bai San Agustiñ bakanduari. San Agustiñ-en osoak ichutzen du geyegiaz, eta argi bakanduak argitzen du bear danaz; oyen guztien ondoren ederki atera dezaket; beraz San Agustiñ da Eleizaren *argirik andiena*; beraz San Agustiñ da *argi guziekikoa eta guzierakoa*; beste argi guztien gaya eta jayotza; beraz, San Agustiñ da, munduaren asierako argia bezelakoa.

Santuren batek adierazotzen oi du, aren Santutasuna noraño el-tzen dan. Zenbat eta justuak oi diran argiago, anbat oi dira santua-go. Beraz, dalarik San Agustiñ guztiak baño argiago, izango-ere bada beste guztiak baño Santu andiagoo. Ichozute. Jainkoak lenbi-zian gauzagiñan ibillita, guziak bukatu zituenean, esan zuen; guziak ziradela chitezko onak, «*Et erant valde bona*.»³ ¿Etzekien bada zeñ zan ayetan onena? Nola nai ere bazakien; baña ala ere etzuen bes-terik esan. Berriz lenbiziko argi ura egin zuenean; ¿zer esan ote zuen? Esan zuen ona zala, eta ez besterik. ¡Au mirarial ¿Ona baizik ez? ¿Ez-da-bada argi ori argirik ederrena, argirik gozoena, argirik andiena, argirik ongilleena? Esan beza bada Jainkoak, argi ura dala argi eder, gozo, andi, ongillea, eta ez uts-utsik dala argi ona. Eta edolarik, ontasunez itzegiñ nai bazuen ¿Zergatik esan etzuen zala argi bat beste guztiak baño obeagoo? ¡A zeñ ondo erakutsi nai zi-gun, nola itzegiñ bear genduen santuen gañean! Guztiak dirade onak-chit, guztiak dirade chitez santuak; «*Erant valde bona*.» Ez degu ordea guk erabaki bear, zeñ dan oyetatik onena eta santuena; zergatik oriek diraden berriketak, chorakeriak eta erausi alperrak. Jakiñ nai nuke nik ala-ere San Agustiñ-ensantutasuna nolakoa, eta zeñ andia dan. Ordea Santuak comparazioetan sartu bear ezpadi-tugu, ¿zér neurriekin jakin aldeakegu? Iñon dan ederrenarekin.

(Bukatuko da.)

(1) Tim. I.6, 16,—(2) Ad. Cor. I. 13,12,—(3) Gen. 1, 31.



ELEIZAKO ERAKASLE AUNDI SAN AGUSTIÑ-EN

DOANDITZA

Jesus-en Lagundiko A. Manuel Larramendi-k erausiya.

(BUKAERA.)

BIGARREN PARTEA.

Lux mundi ardens

Aditu dezute nolakoa eta zein andia dan San Agustiñ-en argia. Diot bada aren santutasuna are andiagoa dala aren argia baño. Orretarako ez degu San Agustiñ-en santidade an alde guztietatik begiratu bear: urruti chit eramango ginduke gauza onek; itzegingo degu aren Jaungoikoarekiko karidadeaz ta amodioaz. Karidade au izandu zan aín irazeki, bero, santu, ta andia; non biotzetik egiñikan, mundu guziari eransi ziozkan Jaungoikoaren amodiozko garrak eta chingarrak. Etzizayon kabitzen bere biotzean, zein ere zan andi ta zabala Jaungoikoagana zeukan sua; ori esan nai digu eskuetan daukan biotz ark, sua eta gain dariola. Badizeka biotz oni barrendik eta kanpotik, betik goitik, eskuitik ozkerretik, alde guztietatik: ori

gichi agiri da. Badizeka-ere beregandik kanpora, eta Jaungoikoa amatzen, ez du neurririk ezagutzen. Amodio onen neurria oi da biotz osoa ez biotz pūska, ez biotz erdia. «*Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde tuo.*»¹ Besteak Jainkoari nai oi diote biotzetik eta biotz osotik. Baña San Agustiñ aurrerago dabill; biotz osotik ez ezen, geiago ere amatzen du bere Jaun ta Jabea. ¿Osotik ere baño geiago? Orra ipuia geiago ori. Edo da biotzekoa, edo ez da; ¿biotzekoa baldiñ bada, au da Jainkoa amatzea biotz osotik. Bai. Ez ordea geiagotik. Biotzekoa ez baldiñ bada, ¿Zér amore izango da? Ez beintzat estimagarria. Ez da ipuia; egia da. San Agustiñ-ek nai zion Jainkoari, biotz osotik eta geiago. ¿Zér da geiago ori? ¿Zér dan? Biotz utsa eta biotz bat ez ezen, baita milloi biotz-ere. Bat dirudi izatez, baña Jaungoikoarekiko daukan garra milloi bat betetzeko diña bada eta geiago. ¿Au ere bai? ¿Are geiago? Bai suertez-ere; eta ikaratuko zeraden adiña. San Agustiñ-ek maita zuen oso beti Jainkoa; baña guchi naiziolako kezka samiñ batek utzitzen-etzion pakean iñon ere. ¿Zér egin zuen bada? Kendu zion, ostu zion, naita nai ez Jaungoikoari bere biotza, eta arekinche arrezkero amatu zuen. ¿Zér da au? ¿Jainkoari ostu biotza, eta ori nai ta nai ez? Adizazute Jainkoak berak zer dion. «*Averte oculos tuos à me, quia ipsi me evolare fecerunt.*» Anima santari zegokala esan zion: Irauli itzaltzu begi oriek, zerren neregandik kanporatzen naute; ezin nagoke nregan, zure begiak iragotela; aiñ dituzu chukun, bizi, ederrak; eta badakizu lenere eritu didazula nore biotza. «*Vulnerasti cor meum*»² ¡Au Jaungoikoaren izkundera! Bai. Bada beste era batera dio: «*Quia excordasti me.*» Ken begi oriek, ez niri begira; Zergatik biotz-bagetu nazun. Beste erara, «*Abstulisti mihi cor*» Ostu didazu nere biotza; ta Nizeno-k diona, Atera didazu barrendik nere biotza, ta sartu ta ichi eta lotu dezu zure biotzean. «*Cor meum mihi eripuisti, et in corde tuo conduxisti et captivasti.*» ¿Zér dute bada begi oyek alako beargayak Jainkoari ematen eta aiñ beregandik kanporatzen dutenak? ¿Zér begi dira oriek? Begi oyek beste gauza askoren artean adierazotzen digute Jaungoikoarekiko izan oi dan amodio bizia eta gartua, zeñaren chingarrak aiñ dira gozo indartsu, portitz, nori Jaungoikoari berari egiten dioten begizko santu bat, ta amore-miñez gaizkitzen duten. «*Amore langueo.*»³

Iñoiz eta iñori Jaungoikoak ala itzeğin badio, gure Aita San Agustiñ aundiari itz egin dio. Aiñ zituen santu onek begiak chora-garri, aiñ zirakien Jainkoaren amarez, aiñ suturik eta irazekirik

(1) Math. 12, 37.—(2) Cant. 4, 9.—(3) Cant. 2, 5.

zedukan bere biotza, non Jainkoa zegokala betaz-beta begira, choratzen bezela asi zan, esaten ziola: «Agustiñ nerea, ken itzatzu begi oriek nigandik; irauli itzatzu beste aldera» *Averte oculos tuos à me.*» Leen zauritu didazu amorez nere biotza «*Vulnerasti cor meum*»: oraiñ ostu dirazu biotza, «*Abstulisti mihi cor.*» Ken itzatzu bada nigandik zure begiak; ez niri begiratu; ichi itzatzu beintzat, neregandu nadiñ; bai, arren; nigatik au egiñ bear dezu. Ez orise, dio San Agustiñ-ek: ¿Kenditzadala zugandik nere begiak? ¿Ordea, noratuko ditut? ¿Irauli ditzadala beste aldera? Ordea, zu izan nere alde guzi, zu nore aurre ta atze, zu nere goi eta be, zu nere eskui ta ezker, ¿eritu dizut Biotza? Ala ondo. Orrekin atea iriki det an sartzeko eta bizitzeko ¿Biotz-bagetu zaitut? Ez dezazula auzirik: ez dago galdua; nerea izango da zure biotzaren kutun. ¿Ostu dizut Biotza? Ta nik ori nai. ¿Ni zure biotzaren lapur? Jakiñ nai nuen: chit orain juango zait samintzen ninduen kezka ura; orrekin amatuko zaitut bear dezun eta bear dan adiña. ¿Zeregandu nai zenduke? Ez; Agustiñ bizi dan artean, neregan bearko dezu; eta nere iritzian etzera gaizkiago egongo. Ez bide dagokizu zenbat nai dizudan. ¿Zer esango dizut? Orra; nai det chit nere Jaungoikoa zeraden; baña egin-kizun balitz zu Agustiñ izatea, eta Agustiñ izatea Jainko, Agustiñ ek Jainko izatea ez luke naiko, zu bakarrik izan zindezen Jainko. San Pedro-k ez omen zekien, zer zeraukien Tabor-eko mendian. «*Nesciens quid diceret.*» Eta ez bide-daki San Agustiñ-ek zer darauzkion; zorabiak artu du, bai; baña amorezko zorabiak; argatik gogoratu zaizka alako itzak, arteraño munduan aditu etziranak: ez eta obeagorik adituko ere, biziago, gozoago, eta amorezko itzkundean andiagorik. Ona noraño eldu zan San Agustiñ-en santutasuna, karidadearen alde-bakar onetatik: etzan aren argia onenbesteraño luzatu: aren argien egunkizunera eratu zan, ez geiago: bañan aren santidadeko eginkizuna, aruntzago aurreratu zan. Prometeo zeritzan batek, diote ipuiak, egin zituela gizonak ala emakumeak are eta lurrez naaste, eta gero oiek piñsteko, eta bizi-erazotzeko, ostu ziola eguzkiari sua eta argia. Etzuen orrelakorik egin gure Aita San Agustiñ-ek: mundua argitu-zuen Jaungoikoak eman zion argiarekin; etzion ordea. Jaungoikoari bere argirik ezer ostu, mundua suz, argiz eta egunez edertzeko. Baña ala ere, Jainkoa-amatzearen egitekoan, aiñ etzan kontentu bere bat-bakarrik zuen biotzarekin amatzeaz, non pakerik izan etzuen, Jainkoari bere biotza ostu artean; ura arekinche andik aurrera geiago eta geiayo bear zan bezela amatzeko. Orra bada nola San Agustiñ-ek argia dan ona, eta andia; baña orra nola, aren ontasuna eta santidadea dan andiagoa eta obeagoa. «*Vidit Deus lucem, quod esset bona. Vos estis lux mundi.*»

Ez algera-argi geiegian lilluratu, eta ainbeste surekin izoztu; argia eta sua bear ditugu guztiok; zuzen eta errebelatu-gabe zeruko bidean ibillteko; adimentuan argi, eta biotzean su. Adimentuan argirik ezpadegu, galduak gera; ezdegu ongi ikusiko: bide limurietan irristatuko, zingiradietan ondatuko, arkaitz-erpiñetan amilduko gera. Lurreko eta zeruko gauzak ezagutzeko, argiaren bearra degu; baita ere gauza guziak diran bezela izendatzeko; ez churiari beltz, ez okerrari zuzen deitzen diogula. Ez da asko adiña edozein-argi: goikoa beardegu, zerutarra, Jaungoikoaren eskuti datorkiguna. Gure Aita San Agustiñ da argi-uts garbia: gatzokion bada, desegin ditzaizkigun gure illunak eta gabak. Ark badu argi bat *guziekikoa eta guzierakoa*; ez algera aiañ doakabeak, suerte gabeak izan, non, beste guziak argirik, illunbea gelditu geraden. Bai noski; ¡Agustiñ Aitarik aundiena! Bai: beteko gaituzu argi ederrez, batere utsik egin ez dezagun zeruko bidean. Eta besteentzat alakoa bazera, nola-koa izango otezera echekoentzat, seme alaba maite biotzean daukatzizunentzat? ¡Oiek, bai, dakitela seme-alaba leyal piñak bezela, zure argiai eranzuten! Argatik dabilta aiañ aisa birtute guztietan; zure itzalararen azpian, zure mendean bizi dira; zure eskupean dituzu, alde eragiteko, inondik sorditezkean gereizeai; pozik daude, eta pozik zaude; pozik daude, zu bezelako. Aita bat izateaz; pozik zaude onelako seme-alabak idukitzeaz. Zure biotzarekin neurtu zuk, oso espiritu osoaren jabe, ta zure argi guziaren gordairu egin dituzunak.

Ez degu argia adimentuan baño, bear guchiago sua biotzean Pizten ez badegu maiz Jainkoarekiko bear degun amantza; emendatzen bazaigu izotz eginikan; gogortu eta ezin ibillirik arkituko gera. Eta orduan gure etsaiak bidera irten, eta erasoko digute; daramatzigun ondasunak kendu eta lotuko gaituzte. Perill orietatik ateratzeko, prest degu sun, gure Aita San Agustiñ-en biotzari sua eta garra darion artean. Aldera gakizkion. Berotu, sutu, erreko eye badigu Jaungoikoaren amorez geren biotza; ta su arekin. batean beterazoko digu atsegiñez, mesedez, birtutez, graziaz, gloriaz. *Ad quam etc.*¹ AMEN JESUS. Alabiz.²

A. M. D. G.

(1) Juan dan euntean, ta leenagokoan-ere, askotan buka oi zuten eleizitzaldia, gloriya aitatzean, era oyetan: *Ad quam nos perducatur Dominus Deus Omnipotens, Pater, et Filius et Spiritus Sanctus, Amen.— Quam mihi et vobis Dominus concedat misericors Deus, Pater, et Filius et Spiritus Sanctus. Amen.*

(2) Ala izan dedilla.